

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

237n. zenbakia
zezeilla 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**ARMENTIA'KO PRUDENTZIO
DEUNA**

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

a 3

U

1998-99 | KASTU RTEA

a

OGEITAMAİKAGARRENA
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 18.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22
BILBAO

31² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, 0 MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 18.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

< Bilbao Bizkaia Kutxa

NAFARROATIK IKERTZAILE

Egun ederrak ospatu genduzan Lizarra eta bere ingurutik Abenduko 12 eta 13'an, gure buruak askatzeko errukiaz Latxaga jaunak eta nik. A ta guzti be, gure maitasunezko gogapenak baztatu ezin eta lan egiteko elburuaz joan ginan; berak: gure artu-emonak idatz-lan baten, Diario de Nabarra aldizkarian, euskaraz argitaratzeko, eta nik ZER aldizkarian.

Goizeko 9'etan Donostitik urten gendun eta Nafarroarentza joan ginan, Arteta'ko erritxora ain zuzen, Gofi'ren mendarte kokatuta dagoana, Latxagak daukan adiskide-on Ullibarrena'tar Joxe ikustera. Ez zan egon bera, besperan gaxo-etxean ogeratu egin ebelako. Ni inguru-begira asi nintzan eta gauza ederrak ikusi nebazan lez Latxaga'ri itaundu neutson, ia zer esan-gura eban ango lan guztia euskeraz egiteak. Xixelari ona (escultor) dala bera eta euskaldun jatorra esan eustan; berak egindako lan asko

Mendebalean Oion (Araba), Moreta (Araba) eta Labraza; Egoaldean Ebro ibaiak eta errioxako Agonzillo'k inguratzen dabe. 78,7 kilometru lauki daukaz, eta 3.464 biztanle.

Biana'ra eldu ginanean, Antoñana'tarren etxean jo gendun atea eta berak zabaldu euskun. Arrituta geratu zan, Latxaga aurrez-aurre egon zanean; azkeneko artu-emona eta alkar ikustea 1972'an izan zan, eta ar-ezkerotik utzean geratu ziran, Latxaga Ameriketara joan zalako. Orduan, Latxagak idatz-lan bat argitu eban Xabier aipatuaz Diario de Nabarra aldizkarian, eta berak argitutako liburuan "NAFARROA, EUSKAL ARROBIA". Xabierren ustean, baleiteke naikoa zala guardia zibillak beren atzetik ibiltzeko jarraian, eta onek 1974'an atzerriratu egin bear eban, giltzapean ez egoteko, eta Kanal de la Mantxako deritxon JERSEY ugartera iges joan zan ain zuzen; an urte bat bete eban

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ren artean, bat, etxe aurrean eta etxe barruan (au, ikus-ezina gurentzat) euki ebana "MUSEO-ETNOLOGIKO" zala; bai artean Nafarroako abertzaleen bizitza eta izenak zurean xixelkatuta (grabados) daukazela.

Nik adarra jotearren: "Nafarroa au izan da.... Sanz buru?"

Lizarrarentza joan ginan, an Latxagak daukan bizi-lekura, gauzak itzi eta baskaltzeko.

ZER ALDIZKARIA

Arratsaldeko lauretan urten gendun Biana'ranta. Erri polita au, eta edestian oso zaarra dana. Bai garrantzi aundiko bizia euki dauana, eta gaur egun daukone Nafarroarentzat. Bultzakada aundia emotsena. VII Santxo Azkarra. orduan Nafarroako erregea zana, izan zan, gaztelotu eta onna aundiekin inguratuz gotortu ebalako, baina batez be "BIANA'ko FORU'az edertu eta abcrastu ebalako; bai erriaren etorkizunerako, bai erregearen asmoak beteteko.

Gizon/emakume jakintsu eta indartsuak izan dira Bianak euki dauzenak, gaur egun be bardin, gero ikusiko dogun lez. Bat, argira ekartearren, or daukazue Nabarro eta Billoslada'tar Prantsizko "Amaya edo VIII gizaldiko Euskaldunak" liburu ederra iru atal-lean idatzi eta argitaratu ebana 1877'ko urtean (eta kontuan euki bear, SABINO'k 14 urte bakarrik zituala).

IBiana, mendi masa! baten ganean jesarrira dago; Iparraldean Agilar-Arronategi eta Aras; Ekialdean Borgota eta Mendabia;

eta gero etorri zan errira. Baina baleiteke be, idatz lanagaitik ez izatea, edo bakarrik ez izatea, orduko erritarrak "el bazkorro" izenez deitzen ebelako, euskal esnalea izategaitik; orren ardura-pean, beti bizi izan da zalantza baten gaur arte, jakin barik zein izan zan guarda-zibillaren gala bere atzetik ibiltzeko.

Antoñana'tar Xabier 1933'an Abustuko 11'n jaio zan. Madrildo ikastetxe-nagusian bete ebazan "Izkuntzak eta Albistaritza'ren" ikasketak. Bere alabak euskaraz ikasi eben, gaur elejakintzan (filologia) maixu egin direnak.

Latxagak itandu eutson ikastolaren azieragaitik, eta berak esan euskun, orrek itaunok, gaur diran irakasleai egiteko, euren ametsa biztuteko alaituaz batera. Guk baietza emonaz, Xabierrek esan euskun 1978'an asi zirela, eta 1983'an etxe aundi baten bealdeko tokia erosi ebala 800.000 pezetagaitik. Ikastolaren aziera oso gogorra izan zala esan euskun, baina gaur egun aldakuntza aundia dagola, diru asko irabazten dabelako erritarrak "Nafarroa Oiñez" ospatzen daben urteetan. Gaur, 100 ikasle daukaz ikastolak, eta orrek asko esan gura dau 3.464 biztanle daukan erritxo batentzako.

Latxagak itandu eutson: "eta zure emazteak zer dino arazo guzti orregaitik?"

Nire emaztea Abalos'tar M.' Jesus izendatzen da, eta ni baino gogorragoa da!, askotan berak bultzatzen nau.

ATUTXA'TAR PAUL
Zornotzan 1998'ko Abustu'ren 14'an

ETA'REN "TREGUA" EDO BAKE-UNEA

DALA-TA

Batzutan, goizeko bederatzietan, España'ko lenengo katean egunero emoten daben "Desayunos de Televisión Española" deritxon egitaraua ikustera jesarten naz.

Lengo egunean izan da, atsegin aundiz, Iñaki Anasagasti jauna ikusteko aukerea izan dodanean.

Zer esanik ez ikusgarria dala onelako billera baten gertatzen dana. España'r Telebista'ko gizakiok, norbera konaturatzen danerako, asten dira euren itaun edo galderakaz, kasu onetan lez, Anasagasti izan zan arren, nik uste beste edonor euskal-gisakiri (jeltzaleai, baleiteke) egingo leikena egiten: bere gogoa menperatu arte, aspertu, gogait egin.

Bai, "ETA" k eskaiñitako "tregua" edo bakeunea izan da egunotan, Euskalerrian zein Gaztelerrian, mundu guztiak ezpanetan erabilli dauan gaia, bestelako ondorenak sortuz. Batzuei poza, zoriona ekar'i deusela dirudi, euskal munduari, batez be. Beste batzuk osteraleiteke zer-esan larregi barik gelditu dirala, nundik nora eztabaidak edo alkarrizketak zuzendu ez dakiela legez. "Les ha cogido con el pie cambiado" edo olakoren bat esan ei dau norbaitek edo batenbatek—auxe berau PP'koai eta Sozialistai buruz esanda—.

Politikarako alde bietan aurkitzen diran Alderdietako kideen eztabaidak eta batabestearen aurkako entzun diran esaldi garratz eta zentzun gitxikoak kontutan izanik, zerbaiten amorru dagola giroan igarri da, eta ortik ez jarraitzeko aolkuak entzun be.

Orain zintzo-zintzo eta zuur jokatzea bearrezkoa litzate-

Ona emen urte barri onetarako neuk egindako bertsoak:

1.- GABON eguna ospatu daigun,
JESUS JAIO DA BELENen!
Goazen, bai, danok bere estalpera,
Antxe dogu-ta itxaroten.
Zerutik zatoz gure artera,
Gizon gorputza dozu artzen,
Andra MARIA zeure AMA da,
JOSE deunak zaitu zaintzen,
Abere apalak euren arnasaz
orko otza dabe kentzen.

3.- Itxaropenez bizitzen gagoz
geure EUSKADI baketzen,
alkarrizketak ugari dira,
gogorkeria lurperatzen!
Batasuna da gure elburu,
aske izatea erri lez,
sekulan ere lotsatu barik
geure EUSKERA erabilten,
Jainko Berberak lagun daiskula
Kristiñau lez bizi ta ilten!

kela izan ei ziran Jordi Pujol'i entzundako berbak, lortu dogun bakeunea uxatu ez daigun.

Gauzak onetara dagozala, urrats txikiak eta gozo-gozo zapalduta ibilli bearra dago, ezetariko agindu okerrrik emon barik, jakiña, Euskalerrian bakeak emongo deutson onura eta nasaitasuna kontutan izanda. Orain-arte galdu doguzan aukerak, bakearen opariaz, bizi-moduari arnasa, erriari laguntza emotea izan leiteke, noski.

Beste zalantza bat egon da bitartean eta dago, jakiña, jente asko baietzean egon arren, bakeunea luzerako ete dan... Gure apostua baietzean dago baiña, au dala eta beste dala beti zirika dabilten bitartean ez ete daben aukera ori alperrik galduko...

Orain idazki au amaitzen nagola, ona emen komunikabideetan urtendako azkenengo barria: Donostia'ko kaleetan ormetan josita agertu diran "panfleto" edo papertzarrak. Eriotzaren zema eta meatxuak, barriro be, PP'ko zifiegotzien aurka idatzita. Jakiña PP'koek asi dirala arin-arin deardarka Euskalerriko Barne-Arazoetarako dan, edo laster izango dan Buru edo Nagusi Martiarena Jaunarengana kezaka eta bere lanpostua laga dagiala eskatzen, euren ziñegotzietan "eskoltak" kenduko deutsezala-ta.

Orra or; badago orain zer esan, eta ez da au asikerea baino. Badakigu ba, emendik aurrera ez dirala Euskalerriantzat gauzak errez-errez izango.

LARRONDO
(13-12-98)

2.— Zelan ulertu misterio aundi au:
JAINKO BERBERA GIZONTZEN!
Ez dago itzik orretarako,
Biurtu gara danok motel.
Bat-egin daigun kristau guztiok
JAINKO-GIZONA, bai, goratzen,
Aingeru taldeak diñoenakin
eten gabe AINTZA! abesten,
artzain-taldean eskua arturik,
orra GIZONA-JAINKOTZEN !

ARGIUNEAK



Ziripot eta inauteriak

— Zer da Ziripot?
 — Nor da Ziripot esango neuke nik.
 — Nor da, ba, Ziripot bedeinkatu ori?
 —Lanz Naparroako errixka bat da eta bertan egiten dabez sekulako karnabalak, aratuzteak edo inauteriak.
 —Eta, Ziripot?

Gizon -aldra batek irteten dau, mozorroz jantzita, Ziripot erdian dabela. Gizon aundi lodikote-lodikote bat da Ziripot, festa-zurrunbilloaren ardatz egiten dauana.

Txakur Jakintsua edo Bakoizak berea

—Bein batean txakur jakintsu bat pasa zan katu-billera baten aurrean.

—Eta, zer?

—Oso kezkatu rik ikusi ebazan danak.

—Arazo larriren bat eukaten ala?

—Eguneroko jakiaren arazoa. Euren ondoan eseri zan txakurra.

Alako batean, or jeikitzen da katu beltz galanta bat eta batzarri onelako berbak esaten dizkio: Zuek begiak gora jaso otoitz eta otoitz; alan arratoiak eroriko dira zerutik moltsoka.

—Txakurrak, zer?

—Onek katuok tonto-lapikoak dozak; neuk beti entzun deusot nere aitari, zerura otoitz egin ezkeroz, goitik azurrak erortzen dirala.



Pinochet Ugarte

Badakizu, Bartolo, Pinochet'en ama Bizkaitarra zala?

— Ez nekien Ugarte zanik bere bigarren abizena.

—Zelako kastia daramagun zaiñetan!

— Nere attittak esaten eban ze: Amalika arta-buru jaiotzen dok munduan.

—Norentzako da lora eder ori: Pinochet ala Aznar'entzako?

Onek be abizen euskalduna darama jaiotzetik?

Biak be ortu bateko loretxu fin-fiñak.

Sudan: Gosea eta Esklabutza

—Nun dago Sudan ori?

—Garai batean Egipto rekin bat egiten eban; bañan, askatasuna lortu eben. Egipto'n bezala, Arabiarrek dira nagusi Sudan'en; ego-áldean, ordea, erri beltza dabe eurokin bat egi-Mk.

—Beltz oien aurka al da 15 urte onetan darabillen guda zitala?

Errotik jorra nai dabez beltz guztiak eta gerra orretan geien sufritzen dabenak eurak dira.

—Eta, esklabutza?

— Orixen da okerrena; Arabiarrek indarrez errietan sartu eta umeak lapurtzen dabez gero esklabu lez saltzeko.

—Orrelako gauza lar'ia ez dau inork be salatzen, ala zer?

— Aspaldian salatuta dago; urte bete onetan Amerika-erdian izan diran triskantzak estali dabe Sudan'eko egoera beltza.

—Argia eman bearko zaio berriro...



Sakristau Berria

—Muragoiko abadea gaxorik egoan eta Mezarik emon ezin.

—Eta, zer egin eban orduan?

Sakristau berriari deitu eta ordena oneik emon:

- 1) Esan gaixo nagoela eta Mezarik emon ezin; orregaitik Mezarik gabe gelditzea ez dala pekatu.
- 2) Biar San Pedro eta San Pablo jaiaren bezpera danez, bijili eguna da.
- 3) Jerolimo eta Andresa eskontzen dirala eta inpedumenturik inork ba'leki, agertu ditzala.
- 4) Ostegunez, lenengo Ostiralaren bespera danez, aitortzak izango dirala.
- 5) Datorren domekan Aita Santuaren aide egingo da meza-tako eskabidea.
- 6) Andrazko sakela aurkitu da elizan eta sakristian dagoala.

—Eta, zertzuk esan ebazan sakristau berriak?

—Ara zertzuk:

- 1) Abadea gaxo dago baña ori ez da pekatu.
- 2) Asteartean ezkontzen dira San Pedro eta San Pablo.
- 3) Jerolimo eta Andresa'ren arteko okerkeririk inork ba'leki egin dezala bijilia.
- 4) Datorren Osteguna lenengo Ostirala da.
- 5) Datorren domekan Aita Santua etorriko da eskabidea egitera sakristian dagoen andereño-sakelagaz.



"Ez dogu ordainduko bakerik"



Aznar jaunak esaniko berbak. (DEIA 6-XII-1998).

Ez da politiko abilla gure España'ko Lendakari jauna.

—Itxuria danez...

—Gizon prestu asko dabil munduan zear bakea lortzeko zereginetan eta bakeari bere prezio emoteko gertu.

ALBISTEAK

Izan be, bake guztiak daukie beuren prezioa.

—Bañan, jaun onek, ez dau iñungo bakerik ordainduko.

—Oba da bakearen prezioa ordaindu, gerra baiño.

Gizon txiki onek beste Txiki baten erueda izan dau: Caudillo izenagaz ezagutzen eben; naiago izan eban bera garaille irtetea, España ondatuz, prezio baten bidez bakea lortzea baiño...

Ez dau Jesus'en itxurarik, bere odolez ordaindu eban gu guztion Bakea.

Brahaman baten amesak



— India'koak al dira Brahamanak?

—Aundikien kasta bat. Ames au eduki eban: Semea nai eban, bere izenari eusteko, illeta berezia nork egin izateko eta abar.

—Eta?

—Orretarako auntz bat eskeiñi bear eutsen Jainko txikiei. Erosi eban auntz ori, ondo gizendu, labana artu eta iltzera doiala, auntzak barre egin eutson.

Zergaitik?

—Ara —esan eutson— ni aurreko bizitzan brahamana nintzan eta semea izateko auntz bat eskeiñi nuen ilda, eta orain auntz biurtu nabe.

—Eta, zer?

—Urrungo bizitzan zeu izango zariela auntz eta ni braharna berriro.

—Eta, brahamanak?

Atzera egin eban. Bañan, berriro etorri jakon semea izateko gogoa eta auntza iltzea erabaki eban. Auntzak negarrari emon eutson:

—Neure antxumeak ikusi nai dodaz, ni ilda gero nork emongo deutse jaten...

—Eta, brahamanak?

Berriro atzera eta berriro aurrera:

—Auntza akabatu bear dot.

—Eta, auntzak?

—Apal-apal agertu jakon: —Bai ii nazazu, bizia ez da ezer, eriotza ez da ezer, semea izatea ez da ezer, ezer ez da ezer... Bakean nago eta zeu be egon zaitetz bakean...

—Eta, brahamanak?

—Barruko argiak ikutu omen eutson; askatasuna eta bakea aurkitu omen eben brahamanak eta auntzak.

—Zuk orri, Bartolo, ondo deritxozu?

—Ondorengo bizitzan auntz biurtzeko bildurrik ez dot eta askatasuna lortzeko Jainkoa ren borondatea oso-osoan betetzea naiko bide dot. San Augustin'ek esaten ebana: Ama eta fac quod vis = maite ba'dozu, askatasun osoa daukazu.

Ezkioga'ko Ama Birgiñaren Agerpenak

—Zer da Ezkioga?

—Zumarraga'tik Donosti aldera, zazpi kilometrora dagoen eritxo bat. 1931 garren urtean, udaran, Bigarren Errepublika sortu ta gero, Ama Doloretakoan agerpenak izan ziran ugari.

—Zuk ori nola dakizu?

—Eusko Ikaskuntzak eratu zitun Iruña'n Erligioari buruzko izketaldi batzuk 1998'ko Apirillaren 24 eta 25'ean. Izlari izan zan William A. Christian; an agertu eban gure liburu bat titulo



onegaz: 'Las Visiones de Ezquioga, la Segunda República y el Reino de Cristo'.

—Irakurri al dozu liburu?

—Ez dot irakurri; bearrik ere ez, an egon nintzalako. Bi umetxo, neska mutillek, asi ziran esaten Ama Birjiña ikusi ebela eskolati baserrira DOJAZELA. Bederatzi egunez ikusi omen zuten. Andik amar kilometrora bizi nintzan Lazkao'n eta bederatzigarren egunean, ara joan nintzan lagun batzuekin txirrindulari.

—Eta zer gertatu zan?

—Zeruetan mirari bat izango zala esaten eben; bañan an ez zan ezer gertatu. Ondorengo egunean ez ziran umetxoak agertu. Umeak ez zirenak asi ziran ikusten.

Zer egiten zenduen billera orretan?

—Lenego ta bat errosario errezatu errespeto aundienagaz; gaueko amarretan errosario eta ondoren agerpenak. Mendiak egoak biltzen zitun une aretan eta edozer entzuten zan bi alde-tan. Moltso aundiak biltzen ziran. Karmen egunean, zeruan miraria azaldu bear zanean, 72 milla lagun egon giñan zerura begira. Gaueko amabietan, sorgiñen orduetan, amaitzen zan batzarra...

Zenbat aldiz joan ziñan?

—Bederatzi bider. Orduan etsi nion, naiz eta ikusle asko agertu zerura begira galdera au egiñaz: 'Ama, zer nai dezu?' Ikusleak bildurrez ari izaten ziran guztiak...

—Eta, inguruko abadeak?

—Zumarraga'ko Parrokia eta Mojatxuen Kapillaua, biak agertu ziran umetxoan ikuskizuna zuzentzen; gerora, errosario esaten. Bañan, Ezkioga'ko abade gaztea ez zan ara joan sekulan; ez eban arek ikuskizunik bedeinkatu.

—Eta, Gotzaiak?

—Don Mateo Mujika zan Gotzai debekatu egin eban ara joatea.

—Eta, zu joan ziñan geiago?

—Uztaillan lenego bederatzi egun eta Irailla ikusmira joan nintzan; mendiaren erdian boxeora moduka egurrezko lauki bat jaso eben eta an ipintzen ebezen Ama Birjiña ikusten zituztenak... Ez nintzan geiago andik ibilli, Gotzaiak debekatu zuenetik, Ezkiogarrak sekta baten antzeko portaera izan dabe, urterik urte... Gotzaiak debekatu ez ba'leu onezkeroko eliza aundi bat izango genduan Ezkioga eta, bear ba da, mirariak be izan ziran, sinismenak egiten bait ditu mirariak.

BARTOLO
ARROPAINGO
(Arrinda tar Anes)



Christian. "Las risiones (le E,-.kioger" libtnuaren egilea dago; argaz*ia obra orretatik ateratakoa da.

BAKIOKO ALBISTEAK

ALAITASUNA PILOTA TALDEA

Urtero torneoakaz leporaino dagoz Alaitasuna Pilota Taldekook, sasoi onetan urrengo oneexek dabilz jokaturen: Umetxuen eta umeen "Eskola Kirola" -eskupelota eta paletea-(Aldundiak eratuta), urrengorik urrengora; nagusien "Corte Inglés Saria" (Pelota Federazioak eratuta), "Bakioko Udala" -pala laburra- eta "Alaitasuna Pilota Taldea Saria" -eskupelotea- (biak Alaitasuna Pelota Taldeak eratuta).

ARDAOAREN GANEKO IKASTAROA

Abenduaren 19tik urtarrilaren 9ra arte, bost egunetan zear, izan genduan Kultur Etxean dalako ikastaro ori. Ikastaro orretan ardaoagaz zerikusia daben eta interes andiko ainbat gauza ikasteko aukera ederra izan eben arako izena emon eben guztiek. Esate baterako: ardao eta txakolinaren ganeko jakingarriak, ardao baltza eta gorriaren arteko ezbardintasunak, ardao moeten arteko berezitasunak, eta abar. Ikastaroa ordaindutekoa 4.000 pta-koa baino ez zan izan.

BAKIOKO ABESBATZAREN BARRI

Igazko abenduaren 19an ETBko SUSTRAIAK saiorako minutu bete abesti grabatu genduan San Pelaio baseleizan. Gabonetako egitarauaren barruan, abenduaren 26an beeko eleizan "Gabonetako Kantak" kontzertua eta 27an, goiko eleizan, Meza Nagusia ahestu genduzan. Ostean, Quinta Torren zaarrei Gabon abestiak ahestu geuntsezan. Beste aldetik, Begoñako Abesbatzen Amabostaldian zezeilaren 4an abestu dogu.

BAKIOKO MUSIKA ESKOLEA

Pilota, jantza, abesbatza ez ezik, musika klaseak ere baditugu gure errian. Kultur Etxean, aspalditik izan ere. Berrogeita amazortzi ume dira guztiz eta urrengo musika tresnak ikasteko aukera dago: txistua, kitarra, pianoa, soinu andia eta trikitia, orrez gain solfeoa ere. Au guztia guraso eta irakasleei esker. Ekarrimeak erriko Musika Eskolara!

SIFAC

Bakioko liburutegian liburu eta aldizkari ez gan, SIFAC zerhitzua egon badago. SIFAC programea datu batuketea da. Datu batuketa onek lan eskaintzak batzen dauz. Informazioa lau ataletan bananduta dago:

Laguntzak: Erakundeek emondako dirulaguntzak, beka, etab.

Enplegu publikoa: Oposaketak, etab.

Enplegu pribatua: Enpresa pribatuek ataratako lan eskaintzak.

Ikastaroak: Erakunde publikoek eta pribatuek antolatutako ikastaroak. Ikastaro onek edozein gai jorratzen dabe.

Orretaz gain, atal berezi bat badago, informazio orokorra deritxona. Or aurkituko dozuez aolku erabilgarriak. Esate baterako: zelan egiten dan Curriculum Vitae, zelan prestatu alkarrizketak. Iana eskaintzen daben enpresen zerrendea eta).

URRENGO BERTSO AFARIA

Jakin daizuen, emengo onetan iragarten deusuegu, datorren zezeilaren 19an Bakioko Euskera Batzordekook Bertso Afaria antolatu gura dogula Gorrondona Txakolindegian. Gure asmoa Xabier Euskitze eta Sebastian Lizaso ekartea da. Beraz, etorten animatu, giro alaian naiko barre egingo dogu eta. Izena, betiko moduan, iragarriko dan epean Kultur Etxean emon bearko da.

XI. IDAZLAN LEIAKETA (1998)

Ona emen igazko Bakioko XI. Idazlan Leiaketan esku artu eben idazle irabazleen izenak adin-taldeko. Idazle guztiek eskerrak emon gura deusueguz ZERen leio onetatik. Gomutatu, beste aldetik, aurtan be Idazlan Leiaketea egongo dana. Gertu zuen idazlumak!

Leenengo taldea, 7 urtetik 10 urtera: Irabazlea: Beñat Elgezabal ("Poloster Robot")

Bigarren taldea, 11 urtetik 14 urtera: Irabazlea: Irati Barrenetxea ("Lorerik politena, Maritxu")

Irugarren taldea, 15 urtetik 18 urtera: Irabazlea: Ainara Madariaga ("Itzala")

Laugarren taldea, 19 urtetik aurrera: Saria idazle biren artean erdibanandu dogu. Irabazleak: M. Bego Iturain ("Munduko pertsonarik garrantzitsuena") Iruñe Iturain ("Leen elkar aurkitzea")

1998-1999KO IKASTAROAK BAKIOKO AEK'n

- 3. urratsa. Egutero, goizeko 9retan.
 - 1. urratsa. Astelehen, eguazten eta egunetan, ilundiko 8retan.
 - EGA. Eguazten eta egunetan, arratsaldeko 7retan.
- Urtariletik aurrera bizkaierazko alfabetatzea asi leitek. Informazioa geiago 94.674.43.16 telefono zenhakira deitu ezkeron.

BARRIAK

ITXAS-ALDEREN LIBURUA SALGAI

Igaz ITXAS-ALDE dantza taldeak egindako liburua 3.500 pezetan dozue salgai. Liburu onetan taldearen joandako 25 urteko historia grafikoa, argazki ugariz orniduta, azalduten da. Askoren pozerako. Gure etxeetako apaletan ondo be ondo mereziduta dauka lekutzua. Alan izan daite-la!

LAU MUSIKA EMONALDI

Lau musika emonaldi eratu dauz Bakioko Abesbatzak. Emonaldiok VERDI'k sortutako lau operetako agots eta koruetan dabe gaia. Emonaldiotatik bi lotuten dira oraindionokarren eta Kultur Etxean arratsaldeko 5.30ean urrengo egunetan izango dira:

- IL TROVATORE, urtarrilaren 16an.
- LA TRAVIATA, zezeilaren 13an.

Igaz izan diran beste emonaldi biak oneexek izan dira: NABUCCO (abenduarien Sean) eta RIGOLETTO (abenduarien 1 9an).

BAKIOKO KULTUR ETXEKO BARRI BATZUK

Abenduaren 1'etik 1 9ra, Kultur Etxeko erakusketa gelan, "Alakiketan" izeneko erakusketa euki genduan. Bertan euskal dantzei buruzko azalpenak, jantziak, oiturak, tresnak eta antzekoak ikusteko aukera ederra euki genduan.

Abenduaren 18an, arratsaldeko 8:00etan, antzerki saioa antolatua genduan eskolako oktogonoan. Maskarada taldearen eskutik "Kontrabaja" antzezlanak ikusi genduan bertan batu ginen ainbat lagunek.

Urtarrilaren Zan, zapatuz, probalekuan umeentzako jotak parkea egon da, 11:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Bertan, zezen mekanikoa, puzgailu andiak eta ludoteka txikia egon dira.

Eta urtarrilaren be, betiko ikastaroetatik aparte, saskigintzakoa daukagu. Ikastaro barriak asteleenero 16:30etatik 18:30etara izaten da.

KORRIKA 11

Laster KORRIKA Bakion!

Datorren martiaren 27an elduko da KORRIKA, euskeraren aldeko lasterketa, Bakiora. Armintzatik sartu eta Bermeora joko dau geure erria zearkatuz. Ordurako ekitaldiren bat edo beste ospatuko dogu. Egun beratan be, jaialdia antolatuko dogu esku artuko dogun guztiontzako. Tira! Asi leenbaileen sasoiaren egoten, euskera arinaringa dator eta!

Aaztu barik! Materiala. Kamisetak.... Eroslen salgai daukazuez.

Iniaki MARTIARTU
1998ko gabonilean

EUSKAL PRESOEN ALDEKO EKINTZA BATERATUA

Bakioko Udalaren Osoko Batzarrak, ago batez onartuta, abenduaren 31 ko eguerdiko I etan, udaletxearen aurrean, Euskal Presoen eskubideen aldeko batze isilera deitu eban. Udalak artutako erabagian onoko oneek eskatu ebazan:

1.- Indarrean dagoan Legedia beteteko, au da, Euskal Preso guzti-guztiak Euskalerriko espetxeetara ekarteko.

2.- Zigorren iru laurdenak bete dabezan Euskal Presoak askatasun baldintzatuan izteko, Legeak alan dino eta.

3.- Gaixotasun osatuezinak jota dagozan Euskal Presoak beingo-beingoan jare egiteko, Legediaren 92. artikulua araberak.

SENIDEAK alkarteak aurkeztutako onen antzeko mozi- noa Ego Euskalerriko 154 udalek, gitxienez, onartu eban, Gabonetako kanpainearen barruan. Bakioko udaletxearen aurrean eun eta berrogeita hamar lagun inguru batu ziran Udalaren deiaz bat etorteko. Presoak etxera!!

BAKIOKO ERIBARRIAK

21 PERTSONA UDALAK NEKAZARITZA BULTZATZEKO ANTOLATUTAKO IKASTAROAN

Udalaren ekimenari esker, zemendiaren 18an ipini zana abian Nekazaritza Bizibarrizteko Prestakuntza Ikastaroa. Onen elburua bikoitza izan da: batetik, gaur egun nekazaritza dagozan ekoizbideak zeintzuk diran ezagutarazotea, eta, bestetik, baliabide egokiak zeaztea, ingurugiroa errespetatuko daben industria, nekazaritza zein turismo arloko jarduerak bultzatzeko. Orain arte, 21 pertsonak artu dabe parte. baina ikastaroa zabalik dago gura daben guztiek parte artu daien.

PLASTIKO ZEIN METALEZKO ONTZIAK IZTEKO SASTARRONTZI BEILEGIAK BAKION

Daborduko Bakion plastikozko, metalezko zein tetrabrik itxurako ontziak izteko sastarrontzi beilegiak daukagu. Foru Aldundiak emandako sastarrontzi onek onako tokiotan kokatu dira: Zubiaur zubian BBKko bulegoaren aurrean, Longarai ostatetxeaz beste aldean, Mimen-Arten. Kiroleta klubaren alboan eta Bakiense ondoan.

ERREKA NAGUSIA BIDERATZEKO AZKENENGO JARDUKETAK

Udalak ilabete biko epean aurrikusita dauka Erreka Nagusia bideratzeko obrei ekitea. Obra oneei esker erreka-ko ibarra zabaldu eta urak ganez egitea saiestuko da. Eusko Jaurlaritzak eta Bakioko Udalak daborduko bein betiko onetsitako proiektu onek guztira 517 milioiko inbertsinoa ekarriko dau. Alan da ze, Udalaren eta Aldundiaren artean obraren %25a finantzatuko da eta ganerako kopurua Eusko Jaurlaritzaren konturakoa izango da.

GITXI BARRU INFORMAZINO BULEGOA ZABALDUKO DA GASAREN IN STALAZINOAREN BARRI EMOTEKO

"INTERGAS EUROPA" enpresak, Bakioko gas sarea instalatzeko obren enpresa adjudikaziodunak, laster zabal-

duko dau informazino bulegoa. Beraz, berokuntza sistema au instalatzeko asmoa daukenek emendik gitxira euki aal izango dabe orren barri.

ITSAS IBILTOKIA AZKEN BEARREN BEGIRA

Itsas ibiltokia amaitzeko proiektuan ezarri ziran obrarik geientsuenak egin ostean, une onetan eraikitze bearrak gel-dirik dagoz, arik eta Gobernu Zentralak onartu arte Udalak eta Itsasertzeko Mugarte Sailak bearrezkotzat jotzen dabezan lan osogarriak, berbarako, erreketako ibarretako erre-mateak, zerbitzu gunea eta ibiltariak babesteko petrila. Bear osogarri orreek amaitu aal izango dira, Gobernu Zentralak urrengo jarduketa burokratikoaren barruan aldarazotako proiektua onesten dauanean.

GAZTELUGATXE BIOTOPO IZENDATU DABE

Gaztelugatxe eta beraren inguruneke flora (armeria euskadiensis, basolibondoa, itsas bedarrak...) eta itsasoko eta lurreke fauna (lanpernak, itsas potorroak, itsas txoriak, itsas usoak...) babestu eta jagoteko asmoz, Matxitxako lurmuturretik Bakioko Atxulora bitarteko eremua babesturiko biotopo izendatua izan da. Beraz, gogorazo bearra dago ondoko ekintza guztiak galarazota egongo dirana: produktu kutsagarriak eta eskonbroak botatzea, kanpatzea, motor bidezko kirol saioak edo jarduerak, itsaskiak urte bitan zear artzea (epe au luzatu leiteke), itsas baliabideak uretatik ataratzea, itsas untziak ainguratzea (3 miliako abiadura gaintzen ez dabenen kasuan izan ezik), jarduera zinegetikoa, boteilakaz edo ezer barik urpean uger egitea, bai eta su egitea be.

14 PERTSONA "OSTALARITZAKO LAGUNTZAILE ZEREGINETARAKO LAN PRESTAKUNTZA IKASTAROA "N

Igazko urriaren bigarren amabostaldian asikera emon jakon Ostalaritzako Laguntzaile Zereginetarako Lan Prestakuntza Ikastaroari. Orrelan, 125 eguneko eta 750 orduko ikastaro onetan—190 teorikoak eta 560 praktikoak—14 pertsona parte artzen dabilz, bertan eskuratutako ezagupenei esker besteren kontura bear egin edo euren enpresa sortu daien. Ikaste prozesu onetan, sute, jantoki eta tabernakafetxeetako oiko gaiez ganera, bezeroei arrera egin, gelak txukundu zein hotel familiar edo onen pareko jarduerak kudeatzeko moduaren inguruko gaiak jorratuko dira.

EUSKERAREN DATUEN GAZI-GOZOAK

Daborduko SIADECO enpresak jarduera ekonomikoetan zein erriko alkarteetan egindako azterketa soziolinguistikoren emoitzak daukaguz. Bertan oso datu adierazgarriak agertzen dira. Esate baterako, Bakioko jarduera ekonomikoetako (tabernak, janari dendak, oilotegiak...) arduradun eta enplegatuen %67,7 euskaldunak izanda be, establezimenduetan gauzatzen diran euskerazko artuemonak onakoak izan dira: bezero eta enplegatuen artean artuemonen %29 euskeraz egin dira, baina bezeroen artean %8 baino ez (kontuan artu bear da, gizarte bizitza, geienbat, Bakioko taberna zein establezimenduetan egiten dana). Era

berean, egitasmo oneri ekin baino leen, euskeraren agerpen idatzia oso urria izan da ia elementu guztietan (idazkiak, menuak, fakturak eta abar). Beraz, ikusi daiteken lez, euskeraren erabilpena naiko asao lotzen izan da izkuntz normalkuntzatik aozko zein idatzizko artuemoneri jagokenez. Ganera, merkatariei zeintzuk diran euskera erabilteko trabarik nagusienak itaunduta, %62,7k erantzun deusku ez dagoala ezelako eragozpenik. Edozein modutan be, orain arte egoera lar ona izan ez bada be, egitasmo onen esker lortu dogu Bakioko jatetxeetako menuen %080 elebietan ipintea, bai eta idazkiak eta iragarpen kartel askotan be (%65) euskeraren presentzia geitzea.

Bakioko alkarteen kasuan, bazkideen euskera jakite maila %80,2koa da, au da, Bakioko erritarren batezbestekoa baino askoz altuagoa (ia 13 puntu). Edozelan be, sano esanguratsua izan da gaztelaniak leen tasun osoa daukan elementua "partaideen arteko artuemonena" izatea. Orrek, SIADECOren esanetan, "argi adierazoten dau eguneroko aozko izkuntza praktika oso asao lotzen dala euskeraren normalizaziotik". Ganera, datuek erakusten dabe 40 urtetik gorakoen artean euskera geiago erabilten dala, adin orretatik beerakoen artean baino.

Datu arduragarri oneek kontuan artuta, argi dago euskerara esparru barriak eskuratu bear jakozana. Orretarako, bear-bearrezkoa izango da alkarteen eskuartzea. Izan be, Bakioko alkarteotan, gitxi gorabeera, 700 pertsonak parte artzen dabela gogoan izanik, alkarteetan artuemon formalak (begirale eta partaideen artekoak, geienbat) euskeraz finkatzearen aldeko politika bultzatuz gero, itzelezko aurre-rapausua emongo geunke euskera prestigiatu eta aozko erabilera geitzeko orduan. Dinamika ori sustatu ezean, urrengo mendean euskera ez da izango Bakioko nortasunari lotutako elementu funtzionala, gazte eta ume guztiek jakin arren, aozko erabilera utsaren urrengoa izan leitekela.

Guztiagaz be, Bakiok aukera ezin obeak eskaintzen dauz euskeraren aozko erabilpena anditzeko: erritarren %66,9, merkataritzan diarduen pertsonen %67,7 eta alkarteetako partaideen %80 euskaldunak diralako. Datuek erakusten daben lez, abiapuntua beren-beregia da gizarte bizitzan euskeraren erabilera bultzatzeko. Sustatze politika ori onako puntuotan oinarritu bearko litzateke: alkarteak eragileak izatea euren barruko artuemonak euskeraz finkatukeran, merkatariek informazino idatzia euskeraz be eskaintzea, erritarrei, orokorrean, eta ume zein gazteei, bereziki, zuzendutako kultur ekintzen kopurua anditu eta euskeraz gauzatea eta, azkenik, bertoko euskera prestigiatzea. Orrenbestez, euskeraren egoeraren inguruko datuak plazaratu ostean, bakiotarren esku egongo da euskerak ainbat esparrutan aurrerapausoak emoteko aaleginak egitea. Alan da ze, au guztia emendik gitxira aurkeztuko jake era ofizialean erriko alkartei, euren autoinplikazino eta borondatean oinarrituz, euskeraren aldeko sustatze lana euren barruko funtzionamenduan bultzatu daien.

JOSEBA TERREROS
Bakioko Euskera Teknikaria

BARRIAK

ALDERDI POLITIKOEK BE "BAI EUSKARARI!" ALDARRIKATU DABE

ZER au argitaratzen danerako, "Bai Euskarari" kanpainaren barruan antolatutako azken ekitaldia (abenduarien 26an Euskalerriko futbol zelaietan egindako jai erraldoia) igaroa izango da. Ala eta guztiz be, ekimen onen barruan bada guztiz pozgarria izandako barria: Euskalerriko bederatzialderdik Euskararen normalizaziorako konpromiso politikoa izen buruko agiria aurkeztu eta izenpetu izana. Au da, AB, Batzarre, CDN, EA, EAJ, HB, EUE-ICV, IU-EB eta Zutik-eko arduradunak maai baten inguruan batu ziran euskarari bai esateko.

Orrenbestez, alderdiok artutako konpromisoak, era laburrean azalduta, oneexek dira:

- 1.- Euskeraren normalkuntza prozesuak bear dauazan neurri politiko eta instituzinozkoak artzeko konpromisoa.
- 2.- Euskera ofiziala ez dan tokietan estatus ori lortzeko jokabideak artzea.
- 3.- Instituzino guztietan euskeraren aldeko neurriak sail guztietara zabaltzea. Era berean, Euskalerrri osoko instituzino eta erakundeen arteko lankidetzaz bultzatzea euskera sendotu eta berreskuratzeko.
- 4.- Bear diran bitarteko administratibo, juridiko eta, beren beregi, ekonomikoak ezartzea. Era berean, dirulaguntzinoen kopuruak anditzea.
- 5.- Euskalerrriko iru erkideko juridikoetan euskera indartzeko onartutako plangintzak bultzatzea. Ganera, Gizarte Kontseiluak eragile sozialakaz egingo dauan Plan Estrategikoa be bultzatzea.
- 6.- Bakotxak bere alderdi barruko eta kanpoko izkuntz erabilpena normalizatzeko prozesu etenbakoa abian ipintea.
- 7.- Azkenik, kopromiso oneen jarraipena egiteko, Batzorde Berezia eratzea alderdi bakotxeko eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko ordezkarietaz osotua.

Ikusi leiteken lez, euskarari be eldu jako alkarlanean oinarrirituta aurrera egiteko sasoia. Itxaron daigun Bakioko erritarrak zein alkarte eta jarduera ekonomikoetako arduradunak onetaz konturatu eta eurek be euskera bultzatzeko politika abian ipintea.

JOSEBA TERREROS
Bakioko Euskera Teknikaria



Itxas-Alde (Bakio). Euskal Kultura-Tuldea

XIBEROKO MASKARADA-99

Aurtongo Xiberoko Maskaradea Idauze-Mendi errieta-ko gazteek eratu dabe. Or ibiliko dira, bada, gazteok urtarilaren 10etik asita eta aprilaren 18ra arte, domekaro, Xiberoan zear Maskaradea dantzatu eta antzetzten. Egitaraua auxa dozue:

urtarri 1 aren:

10ean Idauzen
17an Mendikotan
24an Garindaiñen
31 an Pagolen

zezeilaren:

1an Altzürükün
14an Altzain
21 an Muskildin
28an Arrokiagan

martiaren:

14an Ligin
20an Maulen
28an Urdiñarben

aprilaren:

4an Barkoxen
11 an Larraiñen
18an Mendin

EUSKALDUN EIZAN

Madrilen jazotakoa goiz zein belu etortekoa zan. Espainagaitik il bear izan dabe euskal semea, euskal erritarra. Euskal umeari gorroto andia, sakona, zaarra deutsoe an.

Aize baltzari eragin eta erabili izan deutsoe, urteetan, gizaldietan, gurata eta jakinaren ganean, maisukiro. "A por ellos"-koek ondo be ondo dakie ori. Euskaldunari deutsoen gorroto istoriko zaarra biztu baino ez dabe egin, bein eta barriz. Eta ori guk be ondo be ondo badakigu. Xenofoboak izan dira beti. Xenofoboak dira orain. Ez dabe inoiz eta ezin dabe, orain be, euskalduna euskaldun ikusi. Lagun urkoaren nortasunagazko "tolerantzia" intolerantea, azken baten. Orregaitik garbitu bear dabe euskalduna. Espainagaitik euskal semea il daben lez. Ori "A por ellos"-koek ondo be ondo badakie, Eta ori berberori da, atan be, batzuk eta beste, emengo eta angoen arteko aldea.

Euskalduna, euskal erritarra eizan egin guran ibili dira. Baita lortu egin be. Onetan familiak esandakoakaz bat nator bete-bete. Beioake emetik ildakoaren familiari eta lagunnei besarkadarik beroena.

Iniaki MARTIARTU
1998ko gabonila

ITXAS-ALDEKOAKAZ BERBETAN

Oraingo onetan, ITXAS-ALDE Bakioko dantza taldeko arduradunak diran Xabier Goitia eta Birgiñe Bilbaori egin deutseguz itaun batzuk, eta oneexek izan dira euren erantzunak.

ZER: Zenbat urte daukaz ITXAS-ALDEk eta zelan sortu zan?

IA: Ba, urteak, ogeitabost eta erriko gazte talde batek bultzatuta sortu zan. Beste batzuen artean, Kepa Uriarte, Enrike Zabala, Felix Lauzirika, Floren Zabala, Ana Mari Arrugaeta izan ziran euretarike batzuk, eta guzti ori Bakio-ko Parrokiaren laguntzaz.

ZER: Zenbat inguru zaree taldean eta zer adinetakoak?

IA: Gaur egun eun ta ogeita amabost dantzari gara eta iru urtetik ogeita zortzira arteko adinekoak.

ZER: Itxas-Alde asi zanik eta ona zer aldaketa dago taldean?

IA: Asikera baten, Euskal Kultura zabaltzea eban elburu, au da, antzerki, kantu, dantza arloa eta abar. Orain, esparru ori beteta dagoala eta, euskal dantzak ikasi eta munduan erakustea da gure elburu nagusia.

ZER: Ze ekitaldi nagusi dozuez urte barrirako prestatuta?

IA: Aurtengo ekintza nagusia, duda barik, Argentinara-ko bidaia izango da, zezeilaren ogeitik martiaren irura artekoa, eta gero, ba, urteroko Nazinoarteko Folklore Jaialdia eta Andra Mari eguneko dantza erakusketa nagusia.

ZER: Atzerritik ainbat ibili zaree. Gogoko dira gure dantzak kanpoko errialdeetan?

IA: Bai. Orokorrean, jendeari geien gustatzen jakozan dantzak euskaldunak, errusiarrak eta egoamerikarrak (Argentina, Costa Rica, elate baterako) izaten dira eta uste dogu indarra, bizitasuna eta erabilten diran erremintakaitik izango dala.

ZER: Euskaljerri osoko dantzak egiten dozuez. Zenbat inguru?

IA: Gure errepertorioan zazpi lurraldeetako eun ta ogei dantza inguru daukaguz.

ZER: Eta amaitzeko, zelan ikusten dozue taldearen etorkizuna, badator gaztedirrik atzetik?

IA: Taldean lan arlo asko dago: jantziak, jaialdien antolakuntza, diru kontua, irakaskuntza, eta abar. Oraingo, irakasten ainbat gazte dagoz eta apurka-apurka joango dira beste arloetan be sartzen. Esan leiteke ITXAS-ALDEren etorkizuna ziurtatuta dagoala.

ZER: Ba, beste barik, urrengo batera arte eta suerte ona izan daizuela aurrerantzeko ekintzetan.

ZERRAUTS UGARI ETA ERRATZAZ JO TA KE

Paper errezikletako ikastaroa bailitzan, antzinako moduetara jo bear izaten dogu Alaitasunako kideek. Frontoian pilotan jokatu gura izan ezkerro, fregonak pasatu, zerrautsa zabaldu, beea eskobatu, beearn ganean periodiko orriak jarri... ta zain egon, barrero euririk egin ez daian, gure estalitako frontoi onetan. Ze momentu onetan leporaino gagoz urteroko torneokoak...

- Umetxoan "Eskola Kirola" -eskupeleta- (Diputazioak antolatuta).
- Umeen "Eskola Kirola" -paleta- (Diputazioak antolatuta).
- Nagusien "Corte Inglés Saria" (Federazioak).
- Nagusien "Bakioko Udala" -pala laburra- (Alaitasunak).
- Nagusien "Alaitasuna Pilota Taldea Saria" -eskupeleta- (Alaitasunak).

ta esan legez, fregonak artuta edo eguraldiaren arabera ibili bear izatea edo txarragoa dana oraindino, pelotariei telefonoz deitzen ibili bear izatea, etorri ez daitezkan, sike-tan danean jokatu dogula eta... Zeozer pentsatu bearko dogu, ez da? Edo ez dauka urtenbiderik? Gu, beinik bein, lan egiteko prest gagoz, bien bitartean motibapena amatazen ez bajaku.

BAKIOKO ALAITASUNA PILOTA TALDEA

Q t7 uNta

QG¹ f2f2 a2z^oatis,

g¹ g/.,

Sal;K 7lnaa (Wele,

3

o2ir c.

*Etorkizuna izan egizu,
oparo, guri, biguna.
Euzkadi rentzal, bake-bideak
Egitean dogu lana.
Asparru onetan, agertu danik*

les Le./,

4 fJthe tia4 4 eh

Unai BEITIA
B AKIO

KOPLALARITZA

Bertsolaritza gaurko mailera eldu baino len, beraren eboluzio baiTuan iru maila ipiniko neukez nik:

Textularitza, koplagingtza eta Kanta Zarrak.

Gaurko gure gaia Koplalaritza danez gero, beste barik ekingo dautsagu.

Koplalaritzan sartzen danak bertsolaritzako pentsakerak atean utzi bear dauz. Kopla ez da bertso labur bat, luzeago baten erdia edo laurdena, amar urteko umea ogeikoaren erdia ez dan moduan. Luzerak generoa asko erabakitzen dau. Koplak sano laburra izanda ez dauko betelanik. Bi puntuko edo geienez be iruko koplatan, betelanerako lekurik ez dago.

Koplak bi sailetan banatu daikeguz: batzuk elkar-loturarik gabeko kopla sorta, eta besteak argumentudun sortak. Erromeri koplak, dantzarakoak, geienbat lenengo sailekoak dira.

Badira argumentudun kopla sortak be, ez ainbeste dantzarakoetan, baina bai eskean eta gabonetan. Eta zer esanik ez, balada eta erramantzeetan. Oneik be, naizta oso aire bereziko konposizioak izan, koplalaritzan sartuko gendukez.

Koplen izpirituari gagozkiola, logika bisuala daukiela esan bear dogu.

Koplen gaiak ez dira trszendentalak izaten, gai sinpleak baino. Baliabide onomatopeikoak ugari aurkituko doguz; *tiriki taukf tauki, turruku truku truku, dingili dangoloa...*

Zentzuak,ikusmena eta entzumena batez be, nabarmen-tzea ez da inolako planteamendu estetikoren ondorioztat jo bear. Gauza nabaria, berezkoa, sinplea da ori.

Koplaren sorlekua eta kantalekua natura bera da, ez koplariak autatua, antxe aurkitzen dalako baizik. Dantzalekuak mendiz, soroz, zuaitzez, jende mota askoz inguraturik egozan. Eske eta erronda koplak bardin.

Etxeetan aizkorak, aitzurrak, ganbarak, teilatuak... antxe dago dana.

Kopletan: bada arrazoiketa be. Bizi eben mundua islatuko da, umore puntuan beti be, koplak dibertsioa edo azaskua dira eta. Agian umore mota orretantxe dago koplalaritzaren eta bertsolaritza mota baten arteko aide nagusia. Koplalaritza ironian oinarritzen da, ez zirian. Ironia sarritan miseria edo egoera errukarriak karikaturatzea izango da, baina ez ziria sartzea. Ziri bertsoa edo eraso zuzena maite duenari koplalaritza bearbada xaloege, edo inuzenteege irudituko jako. Bi mundu dira, ironia bera be batzutan xumea,

bide batezkoa izan leike, eta beste batzutan argiagoo eta zuzenagoo., baina beti bere itzulinguru bat gorde bear dau, ona izango bada, eta fina izango bada, ia oartu barik joan bear dau.

Koplalaritza ez da arrazoi dizdiratsuak, idea andiak bilatzeko lekua, egi utzak, konstatazio sinpleak eder biurtzen dauazana baino. Kopla asko malezi bakoak diralako dira ederrak. Orrek ez dau esan gura koplariak berak edo entzuleak malezirik ez daukonik, generoa alakoa dala baizik.

Koplalaritzak errepika bere-berea du, dantzakoetan batez bere:

Ederrak bi balio
onak iru ta lau
ederrak bi balio
onak iru ta lau
galanta izateak
asko balio dau
ai oi ene
asko balio dau
ederrak bi balio
onak iru ta lau.

Koplalaritzan narTazioa eta elkarrizketak plano berean eskaintzen dira. Batetik bestera inongo zubirik edo abisu barik iragaiten da, eta sarritan, nor berbetan dagoan bereizteko, pentsatu egin bear da.

Koplariak gaur eguneko bertsolarien antzerakoak dira, baina gaur egun bertsolarien euren bertsoak gitxienez lau puntukoak egiten dabez, lau errimakoak. Koplariak ostera, puntu bikoak eta batzutan irukoak. Esaera zan-en errimatik aparte ba dabez beste aberastasun batzuk bere, neurria eta doinua. Esaera zarrak, testuak, esan egiten dira, koplak ostera, bertsoen antzera, kantatu egiten dira. Neurria gaurko bertsoen antzera daukie.

Koplen sailkapen eta adibideakaz asiko gara:

1) Zarrak edo arkaikoak

Konposizio auek geiago dira filologian edo linguistikan aztergai, emengo baino. Ala be emen sartzea erabaki dot daukien aberastasuna dala eta.

LELO

Lelo il Lelo, il Lelo
Leloa, Zarak il Leloa.
Romako armak alegin eta
Bizkaiak daroa zansoa.

Oktabiano munduko jauna
Lekobidi Bizkaikoa
Itxasotati eta leorrez
imini deusko molsoa.

Leor zelaiak bereak dira
mendi tantaiak leusoak
leku ironian gagozanean
nok bera sendo dau gogo.

URREXOLAKO GUDUA

Gaiza zenduan Leintzarrok
Urruxolako lakaioa
sendo zenduan odol ori
biurtu jatzu gatzatua.

2) Dantzarakoak

Kopla onek alaiak eta biziak dira, piper eta gatz askodunak. Ezagunak dira geienak, biziak eta euren pikardia daroenak. Esate baterako arin-arineko doinuetan, sarri entzunda izango dozuez era onetako koplak:

Markiña-Etxebarriko Maria Erramona
Markiña-Etxebarriko Maria Erramona
Emoterik ez baina borondate ona
ai ai ai borondate ona.

Tturruku Ttuku ttuku niri ez ikutu
Tturruku ttuku ttuku niri ez ikutu
ama ganbaran dago, sentittuko gaittu
ai ai ai sentittuko gaittu.

Fandangoan erabiltzen direnak be politak dira, naiz eta geldiroagoak izan. Esate baterako:

Mendi altuan edurre
bota surtera egurre
Alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre.

Ikusten dozuenez, dantzan erabiltzen diran edo erabiltzen ziren koplak politak, biziak eta grazia askodunak dira.

Adibidetzat Leon, Maurizia eta Fasioren kopla onek:

Auxe da despedidea
despédide onen tristea
denpora txarrak emonda
etxera doa jentea.

Durangon bazkaldute
Mañarien gora
Urkiolara goaz
San antoniora.
Urkiolara joanda
zapatak urrutu
Aite San Antoniok
barriek eingotu.

3) Eske koplak

Eskabidezko kopla entzutetsuenak Euskal Herrian, Santa Ageda bezperakoak dira, baita Gabon jai aurreko egunetan kantatzen diren koplak be.

Leku batzutan San Juan bezperan kantatzen diren koplak be ba dira, Kopla onen doinuak geienetan umilak, motelak, apalak, izaten dira, eskean umil eta apal ibili bear da eta. Erritmoa, orixe baita apala bere, astiro. Esate baterako, Santa Ageda bezperan talde bat koplaria aurrean dagoela Santaeskean etxerik etxe ikusiko dozue. Konturatuko zineen danak doazela makila banagaz, maki la orrek markatzen dau pausoa, eta makilak eta pausok markatzen daben erritmo geldo ori erabiltzen dau koplariak beraren koplak kantatzean. Eta kopla orreik moteltxoak eta umilak, berba baten eskatzeko.

Alan eta guztiz be, koplaria ona bada beintzat, kopla onen bitartez agertzen dau sarri beraren egokitasuna eta beraren bizitasuna. Zorroztasuna batez bere. Bein Gipuzkoan ba ebilen koplari talde bat Santa Agedako bezperan etxerik etxe, eldu ziran baserri batera, eta an ekin eutsoen luzaro. Koplaria nekatuta ebilen, kanta eta kanta, inor ez zan urtetan atera limosna emoten. Baina olako baten taldeko bat urreratu jakon koplariari eta esan eutson: "Ba da etxe ontan Patxi izeneko mutil zar bat, bertsozale andia. Bear bada arixeri zirikada bat botako bazeunskio aixe jeikiko litzateke, aixek emongo leuzkigu limosna bat". Eta au entzunda batera koplariak era onetara kantatu ei eban:

Etxian bada Patxiko
Ez det oraindik etsiko
ez ote zaigu tardatu gabe
li mosnarekin jeitsiko.

Kopla au entzunagaz batera Patxiko orrek, tak, biztu ei eban kuartuko argia eta andik apur batera etorri ei zan limosnagaz.

Artean oe epelean koplak entzuten egoela, zenbat eta luzeago gurago. Baina ain zorrotz eta egoki jaurti eutsoanean, ez euken beste erremediorik jaiki eta limosna emotera etorri baino.

EUSKAL ASTEA

Beste bein Motrikon (ba dira bertsolariak koplari modura ibiltzen diranak bakarrik. eta orretarikoa da "OKELAR" deitzen dautsoen koplari bat). OKELAR au eta beraren koardrila eldu ziran baserri batera, eta euren kantaldia egiten ibili zirela, olako baten, atea apurtxo bat ireki, andik eskua atara, eta bota eutson koplariari anka artera beraren limosna. Eta neska zar hat zanez gero, koplariari ez jakon gustatu neska zar arek limosna emoteko erabili eban modua.

Iru lau bertso bota eutsozan limosna emoteko sistema ori kondentatuaz. Akabuera era onetara emon ei eutson :

Orrelakorik ez da egiten
Santa eskeko langintzan
karien kara jarri bazina
igual gustatuko nintzan.

Esan gura dodana. naiz eta koplari eta doinu umilak eta apalak izan, koplariak ha dakiela doinu orren barruan be, euren egokitasuna eta zorrortasuna agertzen.

SANTA AGEDA (Zeanuri)

Santa Ageda santea
Muniketako lorea
martirioak pasa zenduzan
igarotearren fedea.

Santa Martini maitea
dago errukiz betea
Jaun Zerukoak emon dakiela
osasuna eta bakea:

Eder elizan liburu
usoak aren inguru
etxe onetako txikar-andiak
paradisuan aingeru.

SANTA AGEDA (Iurreta)

Santai Ageda, Ageda, Ageda
bijer da Santai Ageda
bijer da Santai Ageda eta
gaur aren bezpera gaba.

Neskatila. ez zaitetz egon
ate zulotik begira
zuk nobijorik falta badozu
gure kuadrilan badira.

Andre mondrongo mondrongo
ik ez don asko emongo
ik emondako diruarekin
etxunau asko edango.

GAMINDE-ren geigarria (Urduliz inguru)

Etxe ontako andrea
amar gonaren jaubea
aik duztiak jantzi ezker
etze beteko andrea.

Bartzelonako astileruen
barko barria dau eitxen
etze onetako Juantxu gure
araxe doa kapitxen.

Belarrien urteten deude
erreka munan bitxiek
arexek baino politxauak dire
damatxu, zure begiek.

Ortxe goien host ardi
iru yantzan ta bi adi
etze onetako dama gazteak
merkatariak amabi
merkatariak amabi deittu
zein elejidu ez daki.

4) Argumentudun konposizioak

Multzo onetan argumentua edo nolabaiteko batasuna dauken sortak sartzen dodaz, bai dantzarakoak, bai kanta gisakoak, eta bai baladak eta erromantzeak. Mila eratako banaketak egin leikez, beste ainbeste azalpen emanez, sarritan alperriko buruausteak izango badira be. Sailetan eta azpisailetan galtzeko beldurrez era sinple eta garbiena auxe iruditu jilt, au da, zerbait kontatzen edo argumentu bat erakusten daben sorta guztiak, laburrak zein luzeak, batera emon.

GOIZEAN PARISEN

Goizean Parisen, gabean Parisen
au da Parisko kaleen luzea
Auxe kale au pasata baneuko
atzeko mando gorri au neurea.

Izerdi patsetan alboka osketan
zazpi legoa bete dan kalea
zazpi legoak eginda baneukaz
Arrati etsera, mando jaubea.

Kopla auek ipuin bateri dagozkie. Arratiako albokari batek beste arratiar bateri jokatu eutson Parisko kalerik luzeena alboka etengabe joez baietz egin. Bakoitza mando banatan joan zan eta egun osoa eginda, albokariak irabazi bear ebala ikusirik, besteak albotik alboka-aoa eskuz itxi eutson, eta albokaria bertan ito zan, arnasarik ezin artuta. Baina ez eban jokorik galdu.

zeure izenik bakizu?
-Niri, ai jauna, aztu...aztu jat
aztu egin jat parkatu.
-Belarri-luze, adurti
Astua zara zu gaurtik.

Sorta onek bistan dauko here tankera kultoa, baina egitura sano errikoi or^reri esker, eta beste baliabide xume batzuk bide dirala, ezin ukatu polita danik. Tamalgarria azkena, astoarena, ez dala euskara osoan sentitzekoa. Astoa eta aiztu, ahantzi, atzendu... esaten dabenentzat itz jokoak ez dau balio.

EGUN ON JAINKOAK

Egun on Jainkoak dizula
andratxo gaztea
Baita zurorri here
galaitxo maitea.

Senarrik eta ba al dozu
andratxo gaztea?
-Indietara joan zan
galaitxo maitea.

Umerik eta badozu
andratxo gaztea?
-Bi, seme ta alaba
jauna, or dira.

Umeok nundik daabizuz
andratxo gaztea?
-Eskolak ikastera
jauna, joan dira.
-Zanko ederra dozu
andratxo gaztea.
-Nik alan gobernatu
galaitxo maitea.

frailea eta galaitxo gaztea ageri dira. Frailearen kasuan, senarra bera omen zan, fraile jantzita emaztea probatzera doana, naizta egizko frailea izanda be zer galdurik ez lukeen.

5) Gabon koplak

Kopla mota onetan dagoen multzo andiak garbi erakusten dau zein oparo kantatuak izan diran jai auek Bizkaieraren eremuan. Euskalerra osoan be ori alatsu izanik, Marijesen eta Bilboko eliza batzutako GABON-BERTSOEN tradizioa Bizkaiko berezitzat jo daitezke.

MARIJESIAK (Gernika)

Abendu santu onetan
Kristoren jaiotzian
kontentuaren aundiz
guztiok poz gaitian.

Astua ta idia
daukaz aldamenian
arnasaz berotzeko
oztuten danian.

Ogeta laugarrena
degu abenduan
deseo genduena
logradu genduan.

Gernikako Gaubeka inprentako Bittor Gaubeka Duok 1955. urteko abenduan Marijesien liburuska bat argitaratu eban: Gabonetarako Kantak, Gernikan eta alboko errietan kantetan diran lez. Antza danez jardun au Abenduaren amaseian asten da, eta goizaldeko lauretarako, Marijeselariak Gernikako Andra Mari elizaurrean alkartzen dira, eta Tabernakuluaren aurrez aurre, danak belauniko, Jesus Sakramentatuaren len agurra intonatzen dabe, aapaldi onegaz:

EUSKAL ASTEA

Sakramentu Santu Jauna
zelebradu zanian
izena imini deutse
Jesus Salbadoria.

EIBARKO GABON KANTAK

Gabon asteen sartzean, mutiko ta neskatilak kantari:

Gabon Gabonete
errez errezete
Jesus jaio da ta
jo daigun krikkete.

Gabon egunean:

Agillando, Agillando
bizkaitarrak Durangon
aingeruak gara
zerutik gatoz
boltsia badogu
eskian gatoz.

Urte barria asteen, kalez kale:

Urte Barri eguna
ez da egun txarra
kortara jausi jaku
gure zapai zaarra.

Baserriz baserri mutikoak eskean:

Urte barri barri
txan-i belarri
daukanak ez daukanari
zaria bete madari.

Errege egunean:

Errege, erregen
Mari Montaina
zazpi intxaur ta
iru gaztaina.

Azkenik eta itzaldi onegaz amaitzeko EUSTAKIO EULEA-ren kopia batzuk aipatu gura neukez.

Eustakio Larrabeiti Trabudua 1936. ko Uztailaren 30ean il zan Galdakaoko Urreta auzoan, 88 urte zituala. Gerra sortu eta zortzi egunera, beraz. orrek esan gura dau 1848an jaio zala. Loiuko seme lez agertzen da bere alaben bataio agirietan, baita Udaletxekoetan be, baina Loiu, Erandio, Gatika, Mungia eta Laukizko bataio liburuetan ez da bere izenik agertzen. Bere arreba Angelaren bataio agiria bai agertzen da Erandioko Liburuetan, 1845ean.

Bere emazte Paula Madariaga Mungikoagaz bi alaba izan ebazan. Elbira 1880an eta Higinia 1885an. Auek Laukizko bataio liburuetan agertzen dira. Laukizko Gamene-n bizi zala diñoerri. Badirudi, beraz Loiutik Laukizera ezkondu zala eta zartzaroko azken urteak Galdakaon emon ebazala, senideren baten etxean. Bere eriotz agiriak bi xehetasun jartzen dauz: " No consta que haya otorgado tes -

tamiento. Causa del fallecimiento: Ondo-carditis". Lenengo sinestekoa da, baina biotza ondo eukalako iltzea ez dakit ba, asi barri zan gerratik libratzeko ez bazan.

Garai artarako ain bizi luzea arrapatu eban Eustakio lanbidez eulea zan eta ortik zetorkion mundu guztiak ala eza gutzen eban izenordea: Eustakio Eule, Eulea, Eulie... Ingu-ruan entzute andia lortu eban eta erritarren oroimenean gizon bromosoa eta zelebrea izan arren, zenbait ekitaldi politikotan be agertzen da.

ZORTZI NOBIO

- 1.- Neska polit bat jagok
Laukizko errien
zortzi nobio jozak
urte bi t'erdien.
Zortzigarrena jaukok
inoizko larrien
ez ibili baziren
fineza garbien.
- 2.- Lenengo nobioa
zala kuberue
mutil galanta baina
bekoki pardue.
Aregaz artu banue
neure estadue
orain egongo nintzen
ondo ezkondu.
- 3.- Bigarren nobioa
zan zapatarie
kojoa izan balitz
konsolagarrie.
Neuk bere banituen
orratza ta arie
baina ez neban gure
nik zapatarie.
- 4.- Irugarren nobioa
zala alargune
baztar askon jabe ta
erederu jaune.
Ak bere euki ez baleu
etxe bete ume
egie da edozer
egingc gendune.
- 5.- Laugarren nobioa
gauean zan joaten
gelako bentanea
koska koska joten.
Aurreko atea jo
ta atzera urten
ori bai, Josepatxo,
sarri egin zeunsten.
- 6.- Bosgarren nobioa
Señor Eusebio
egunean pezeta bi
daukoz diario.
Axe izango neuke
inor baino obago
berak gura banendu
ni konforme nago.
- 7.- Seigarren nobioa
Eustakio Eulea
prakazar inuzente
koitedu pobrea.
Ik bere baenduen
ezkondu gurea
baina eragin eunstan
erretiradea.
- 8.- Zazpigarren nobioa
zan barranderue
irabaziten eban
bastante dirue.
Ak bere euki ez baleu
zurie burue
beste bat izango zan
neronen asmue.
- 9.- Zortzigarren nobioa
Jose auzokoa
Arrazortzi urteko
mutil ditxosoa.
Gorputz ederra eta
amodiosoa
zeuk izan bear dozu
neure esposoa.
- 10.- Ni zure lengusu ta
zu nire lengusin
ibili zaite ortik
ixiltxo beinipein.
Badakit zabizena
kanpotik esaten
despedidatu nozula
bentanaren baten.

11.- Zu orain ibilteko
olakoak esaten
ni zure bentanara
ez nintzen joaten.
Amaika demonino
bajagok munduen
Josepa lengusinak
engainau nenduen.

ASIER LEGARRETA

EUSKERAREN BITXIKERIAK

Izkuntz eder bat ba-da munduan
bakar bardin bagekoa
zuriz, gorriz ta orlegiagaz
ondo apaindurikoa;
beste izkuntzen antzik ez dauka
bera da berez osoa
urre gorrizko jakituria
bere soiñean daroa.

Euskal mendiak eta oianak
ba dabe euren grazia
euzkotar batek sortueraziz
maitasunez bizitzia;
baserritarrak lurra landuten
agertuz jakituria
urregorrizko izkuntz eder bat
sorturik argiz betia.

Enda iaio ta erri jatorrak
ba-ditu bere bideak
buru biotzez agertzen ditu
bere abilidadeak;
bitxikeriaz josita daukaz
azalduteko ereak
itz eta izki zorakorretan
agertuz burubideak.

PAULIN

IPUIN-SARIKETA 1998 (Euskerazaleak)

EPAI-MAIKOEN ERABAGIA

Bilbao'n, 1999n.urteko urterillaren ogeian batu da EUSKERAZALEAK ALKARTEAK izendatutako Epai-Maia eta, artu diran ipuin guztiak aztertu ondoren, sari oneik emotea erabagi dau:

- 1.º saria: Idazlea: *Murua 'tar Jose Maria.*
- 2n. saria: Idazlea: *Aurre Apraiz'tar Balendin.*
- 3n. saria: Idazlea: *Arrinda 'tar Anes.*
- 4n. saria: Idazlea: *Legarreta 'tar Asier*
- 5n. saria: Idazlea: *Etxaburua 'tar Asier*



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

ARZELUZ TAR ANDER JAUNARI



Luzear ta luzeat
anaiak dirudie
zeru urdiñean
zure barne giroak
sortu eutzun izena
parnaso mendian.

Izarrak ziran goian
zeruen zuzendari
babes urdiñean
ta zuk argia maite
gizonak askatzeko
lur ederrenean.

Euskaldun sena dabil
borborka mendietan
udalen goizean;
zuk argia nai zendun
beti, bizi bizirik
euzkoen izatean.

Erri bat zeunkan aurrez
Odolez berezia
dana maite miñez;
ederrena bera zan
lege danen artean
buruz ta biotzez.

Euskal gizarte miñak
dei egian arduraz
gizonen barnera
gogoz esan zeuntsan
emen nator indartzen
euzko bizikera.

Geroztik beti gogoz
eskein zeuntsan bizia
maitegarri ari ;
izkuntz iaierik ba da
emon zeuntsan biotza
erri maiteari.

BASERRIA

Euzko baserri aintzagarriak
arizti ta intxaur artean
zuri ta zabal agertzen dira
gure lurraren gainean;
etxe jagole txakur zuria
beti, azkar gauelean,
iturritxoa ura opaka
egarri atsedenean.

Gure arbaso goragarriak
sortu zituen kabiak
mendi ta solo ta zelaian
zeru izar irudiak;
lurralde oro ederrez dauka
basetxe apainduriak
maite miñetan ikusten ditut
baserri zoragarriak.

7 Bakar bakarrik zagoz zelaian
orlegiz eder jantzirik
zure leioan dago amama
eguzkiz inguraturik;
illobatxoak daukaz alboan
alaitasunez beterik,
zuek maiteok daroazue
nire odola bizirik.

Giza biziak ez dau nai berez
gorrotorik biotzean
senar barria, alai, bizi da
emazteagaz batean;
etxeko andre zoragarria
pozez laguntzen lanean
maitasunezko bititza onak
bakea sortzen etxean.

Euskal basetxe kristau sendian
kurutzea da gidari
Jesus maiteak golgota mendin
emon euskun ezaugarri;
lan ta otoia lurra landuaz
batera doaz bidari
baserri muga sinimentsuak
ikutuz zerukoari.

PAULIN

PAULIN

BAKIOKO EUSKERA-4

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oarra: Era bitara dakrgruz, esaterako,

- zelan idatzi bear dan: "egin dodaz"
- Bakion zelan esaten dan: "(ein dxotés)"

Aditza izango da oraingo onetan ukutuko dogun gaia. Zeatzago esanda, aditz laguntzaileari begiratuko deutsogu. Aditz laguntzaileak, bada, aditz nagusiari lagunduten deutso, esaterako:

- Jonek **artu eban** artutekoa atzo. (*Jonék artú dxen/seuén ártutekoa atzó.*)

aditz nagusia: **artu** (*artú*)

aditz laguntzailea: **eban** (*dxen/seuén*)

Aditz laguntzailea jokatu egiten da, nagusia, ostera, ez. Aditz laguntzaile bi daukaguz euskeraz: IZAN aditz nagusi intransitiboakaz Doan, etorri,...) jokatuten dana eta UKAN aditz transitiboakaz (artu, eroan,...) jokatuten dana.

IZAN(NOR-orain/gero

Ni/Neu	(ni/néu)	naz	(nas)	ez naz	(enás)
i/Eu	(i/eu)	az	(as)	ez az	(eás/esás)
Zu/Zeu	(su/séu)	zara	(sará)	ez zara	(esará)
A/Bera	(a/berá)	da	(da/de)	ez da	(está)
Gu/Geu	(gulgéu)	gara	(gará)	ez gara	(eskará/egará)
Zuek/Zeuek	(stiek/séuek)	zaree	(sarle/saré)	ez zaree	(esaríe/esaré)
Areek/Eurak	(árek/áiek/éurek)	dira	(diré/dirés) (I)	ez dira	(estirélestirés)

(1) Edo onek be bai: (*dié/diés*) - *festié/estiés*)

OARRA: egin (*chi, in*), jakin (*dxakín*), imini (*imíñi*), il (il), ibili (*ihillí*)... aditzokaz eta ezin (*esín*) berbeagaz urrengo oneexek entzuten dira: **da** (*dxa,dxe*), esaterako:

- Ori **imini da**, ez besterik. (*Orí imin dxe, es hésterik*)

- Leen **egin dala** esan dozu, ez da? (*Len in dxalá esán su, está?*)

IZAN (NOR-leen)

Ni/Neu	nintzan	(nit én)	ez nintzan	(en tzén)
I/Eu	intzan	(itzén)	ez intzan	(eitzén/iitzén)
Zu/Zeu	zintzazan/zinan	(sintzén/siñén)	ez zintzazan/zinan	(esintzén/esíñén)
A/Bera	zan	(sun/sen)	ez zan	(esán)
GulGeu	gintzazan/ginan	(gintzesánlgint en/giñén)	ez gintzazan/ginan	(eskintzesán/eskintzén/eskiñén)
Zuek/Zeuek	zintzazen/zinen	(sintzien/siñien)	ez zintzazen/zinen	(esintzien/esíñien)
Areek/Eurak	ziran	(sirén)	ez ziran	(es rén)

OARRA:Entzun, urrengo oneexek be entzuten dira:

ni nintzan (*nitxén/neitzén - enitxén/eneitzén*)

gu gintzazan (*gintxén/geiñén - eskintxén/eskeiñén/egiñén*)

zu zintzazan (*sintxén/seiñén - esintxén/eseiñén*)

zuek zintzazen (*seiñien - eseiñien*)



EVSPMRTZTLEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea

BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik..
lagunduten deutsegu gogo Csoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dari euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa